

Bertso doinuen idazkera

(Noting of the melodies of verses)

Dorronsoro, Joanito
Aita Mari, 24 - 4. 20750 Zumaia

BIBLID [1137-4470 (2007), 15; 195-199

Jaso: 06.12.18
Onartu: 07.06.18

Jose Antonio Arana Martija jauna izan da, 1980-82 urtetan bide berri bat ireki diguna, bertso doinuak pentagramatan solfeoz egoki idatzi ahal izateko. Berak ekin zion lehen aldiz bertsolarien musika, bertsoaren egitura errespetatuz, lerroz lerro neurrira egokiturik idazteari. Asmakizun eta ekarpen garrantzitsua izan da hori, bertso gintzak azken aldian lortu ahal izan duen garapenerako.

Giltza-Hitzak: Euskal herri musika. Bertso doinua. Puntu doinua. Bertso doinuaren idazkera. Bertsoaren neurria. Bertso gintzan egin den iker-lana. Bertan musikak duen garrantzia.

El señor José Antonio Arana Martija abrió una nueva vía en los años 1980-82 posibilitando la escritura de poemas en un pentagrama de solfeo. Fue el primero en escribir poemas verso a verso respetando la estructura de los mismos y la música de los bertsolaris. Se trata de una contribución importante que ha posibilitado el desarrollo conocido por el bertsoarismo en los últimos años.

Palabras Clave: Música popular vasca. Melodía de versos. Escritura de melodía de versos. Métrica de versos. Investigación sobre bertsoarismo. Importancia de la música.

Monsieur José Antonio Arana Martija a ouvert une nouvelle voie dans les années 1980-82 permettant l'écriture de poèmes sur une portée de musique. Il fut le premier à écrire des poèmes «verso a verso» en respectant leur structure et la musique des bertsolaris. Il s'agit d'une contribution importante qui a permis le développement connu par le bertsoarisme au cours des dernières années.

Mots Clés: Musique populaire basque. Mélodie de «versos». Écriture de mélodie de «versos». Métrique de «versos». Recherche sur le bertsoarisme. Importance de la musique.

Hasteko gogora dezagun, herri musika eta bertsoa elkarren adiskide leial ibili direla, euskal herriaren mende askotako bizimoduaren adierazle eta gozagarri. Gure kantutegietan nahiz bertsolarien ahozko tradizioaren bidez heldu zaigu gure eskuetara aberastasun izugarri hori. Zenbat kantu xarmant, zenbat melodia triste, zenbat maite doinu sarkor, zenbat bertso doinu arin, jostalari, bizkor! Eta nekazal gizartean loratutako ondasun guzti hori gaurko gizartera egokitzen, bertsolari gazteen zerbitzura ipintzen lan handia egin da azkenaldi honetan, 80tik hona batez ere. Elkar uler dezagun komeni da agian adieraztea, guk *bertso doinu* deitu diogula herri musikaren altxor honi, bertsoarekin lotuta dagoen heinean, lokarri estuz daude biak egon ere, eta arlo honetantxe, hain zuzen, nahi nuke aipatu hemen Arana Martija jaunaren ekarpena.

Euskaltzaindiak 1980 eta 82 urtetan antolatutako bi Bertsolari Txapelketa Nagusietan bertsolariak erabilitako doinuak liburutan solfeoz idatzi, partaideen artean sail honetako sariak banatu, .hitz batean, bertso doinuen ardura osoa bere bizkar izan zuen Arana Martijak. Esan behar da gainera, Amurizak irabazitako bi norgehiagoka horiek, aro berri baten mugari izan direla bertso gintzan oro har, eta doinu kontuan zehazki, oparo apartak izan baitira biak, bigarrena batik bat. Ondorengo txapelketetan Bertsozale elkarte sortu berriaren baitan arlo berdineko arduradun jarraitzaile izan naizenez, gertutik ezagutu dut gaia.

Baina bertsolarien ahotik entzundakoa partiturara transkribatzerakoan, berezitasun nabarmena sartu zuen gernikarrak, ordu arteko tradizio osoa irauliaz. A. Donostia, Azkue eta gainontzekoen kantutegietan, partituraren zabaleran kabitzen diren konpasen arabera datoz, noski, pentagramatan idatzirik, bertsoaren errima eta egitura ezertarako aintzat hartu gabe. Berdin, A. Zabalaren Auspoa saileko liburuetan datozen bertso doinu guztiak. Jesuita tolosarrak han eta hemen bertsoa jasotzerakoan, hari dagokion doinua ere magnetofon zintzo jaso ohi du, ondoren Manuel Yaben eta Anbrosio. Zatarain jaunek pasatu diotelarik solfeora. Horrela izan da idatz legea, gure nahiz mundu zabaleko musika tradizio osoan.

Jose Antoniori zor diogu intuizio honen jabetza, esan dugunez: bertsoa zenbat lerrotan idazten den, zergatik ez bertso doinua ere beste hainbestetan? Bertsoa neurriaren arabera idazten den bezala, zortzikoak zortzi lerrotan, hamarrekoak hamarretan, eta abar, bertso doinua ere berdin; konpasa bi lerro artean hautsi behar bada hautsi, eta bertsoaren zerbitzura ipini musika idazketa, hori izan da haren asmakizuna. Izan ere, hain dira bat bertsoa eta doinua, bai artistaren sorkuntza unean, bai plazako entzulearengan eta baita bertsoa memorian gordetzean ere! Biek osatzen duten arte izaeraren muina hobeto ulertzen da horrela, nola ez, modu egokian adierazita.

Edozein moduz ere, bertso idazkeran bi joera izan ditugu gure artean; Iparraldeko bertsozaleek, zenbat puntu dituen ahapaldiak, errimen arabera, hainbeste lerrotan idatzi izan dute, zortzikoak lautan, hamarrekoak bostetan, Hegoaldekoek aldiz, puntu bakoitza bi lerrotan banatuz, 8koak 8tan, 10ekoak 10etan, eta abar. Gaur esan daiteke hegoaldeko ohitura nagusitu dela, Bertsozale elkarte Euskal herri osokoa denez gero. Badu garrantzia gaiak. Bertso gintza-artearen oinarri nagusietako bi, puntua eta errima direnez, grafikoki erraztu egiten du irakurlearen begien bistara, bai puntuaren neurri

zehatza, dela 7/6, dela 10/8, bai errima hitzak edo oinak. Jakin badakigu bertsoaren ardatza puntua dela, hau errepikatuz osatzen baita "versus" a.

Idazkera berri honek badu beste onurarik ere. Bertso zaleoi, doinuaren egituraz jabe gaitezen, grafikoki adierazten digu muina, zeren bertsoaren ardatza puntua dela esan badugu lehen, orain berresan dezagun puntu-doinua dela bertso-doinu osoaren giltzarria. Puntu-doinu bat aztertzen hasi orduko, nabarmen agertuko zaigu begien bistara, gainontzekoekin batera osatzen duen egitura osoa. Gure herri musika, ia dena bertsoari lotua dagoenez, silabikoa da oso, hau da, zenbat silabatako bertsoa den, hainbeste musika nota ditu doinuak ere. Jakina da neurria xuxen eramatea dela bertsolariaren lanik nekezena, eta hori doinuaren bidez lortzen du, hauxe du ezinbesteko tresna, doinua baita bertso gintzaren beste oinarri nagusietakoa. Guzti horregatik da, beraz, oso pedagogikoa idazkera berri hau.

Esaten ari garenen adierazpide, har ditzagun bi doinu, zein baino zein ezagunagoak, 80 txapelketa liburuan Jose Antoniok idatzitakoetatik:

Xarmangarria zera

22

The image shows a musical score for a piece titled 'Xarmangarria zera'. It begins with a treble clef, a key signature of one flat (B-flat), and a 3/4 time signature. The score consists of seven staves of music. The first staff starts with a double bar line and a '22' in the left margin. The music is written in a simple, rhythmic style using quarter and eighth notes. There are some markings below the first staff, possibly indicating fingerings or breath marks. The piece concludes with a double bar line at the end of the seventh staff.

Doinu hau aipatu liburuan dator 129 orrialdean, 22. doinua. (Izenbururik gabe dator).

Era honetan idatzita, erreparatze hutsarekin nahikoa dugu, eritmoaz eta doinu egituraz garbi asko jabe gaitzen. 8 lerroek dituzte hasiera berdinak, goiko konpasaren amaierako nota beltzekin. Lau puntuak elkarrekin alderatuz ikusten dugu, 2.a eta 4.a berdinak direla, eta bi lehenbizikoak ere hasi, elkarren berdin-berdin hasten direla. Zortziko txikiko doinu honek, esan genezake, beraz, **a1 - a2 - b - a2**, elementuz osatutako egitura duela. Doinu zeharo silabikoa, xumea, sotila, samurra. Edertasuna ez dago askotan gauza korapilatsu nahasietan.

Iparragirre abila dela (klasikoa)

*Iparragirre abilla dela
askori diyot aditzen...
Eskola ona eta musika,
ori oyeekin serbitzen.
Ni ezazu ibiltzen
kantuz dirua biltzen,
komediante moduan;
debalde pesta preparatzen det
gogua dedan orduan.*

*Eskola ona eta musika,
bertsolaria gañera...
gu ere zerbait izango gera
orla ornitzen bagera.
Atoz gure kalera
baserritar legera
musika oyeke utzita;
Errenteriyá'n bizi naiz eta
egin zaidazu bizita.*

Jautarkolen Xenpelar liburuko 35 orr.

Iparragirre abila dela (berria)

1980 txapelketa, 12. doinua, 119 orr.

Neurri bereziko bertso doinua dugu hau, guztiok dakigunez, tartean bi puntu motz dituela. Esan ditugunen pedagogia abantailez kontura gaitzen, nik uste, egin ditzakegun komentario guztiak baino gehiago balio dezakeela, doinuaren bi idazkerak bata bestearen ondoan begiztatzeak, bata klasikoa eta bestea berria.

Geroztikako bertso txapelketa nahiz bertsogintzako beste arlotan doinuetaz arduratu garenok, hark irekitako bidea jarraitu dugu, noski, gure ikuspegitik dakartzan abantailez ondo jabetuta, nahiz eta jakin, baduela idazkera honek zailtasunik ere teknika aldetik, ordenadoreko programak egokitzerakoan.

Pentsa dezake norbaitek, inora ez garamatzen kontu merkeekin aritu garela hemen, baina ez dago gaizki gogoratzea, kultur munduaren ikerkuntzan tapa-tapa pauso pausoka egiten dela bidean aurrera, batek bestea dakarrela. Harrotzen ezin hasiko gara, baina ondorioak bistan daude zorionez, gaurko bertso mugimenduari erreparatzen baldin badiogu.

Nori berea omen da gizalegea. Euskal musika alde askotatik aztertu eta bultzatu duen gizonari, bertso mundutik ere aitortu nahi izan diogu gure esker ona.